
LOSER
OSA+MUJIKA



OSA+MUJIKA

OSA+MUJIKA, Jaiotz Osa eta Xabier Mujikaren arteko topaketa artistikoa da. Bi mundu sortzaileren arteko elkartzea da: alde batetik dantza, eta jantzigintza/eszenografia bestetik. Jaiotz dantzari eta koreografoa da, Xabierrek berriz, jantziak eta espazio eszenikoak diseinatzen ditu. Bien artean sortzen duten taldearen helburua bisualki indartsuak diren istorioak kontatzea da, buruan dituzten irudiak sortzea, hauei forma eta zentzua eman eta mugimenduaren bidez nahiz formatu audiobisualetan garatu. OSA+MUJIKA dantza eta ikusentzunezko arteetan dituzten interesak asetzeko sortu da.

Ez-ohiko espazioetarako sortutako **Suddenly** pieza motzarekin hasi zuen ibilbidea -EHU/UPVko Mikela Laboa katedraren eta Gipuzkoako Dantzag nearen Sortutakoak10 laguntzei esker- RedAcieloAbierto 2017n hautatua izan zen eta bertako nahiz nazioarteko jaialdietan dantzatua. Lan hori garatuz 2018ko otsailean 50 minutuko **Suddenly III** antzokirako obra aurkeztu zuten Donostiako Gazteszena antzokian; Danza a Escena 2019an hautatua izan zen.

Lehen esperientzia honen ondoren, eta sortzaile gonbidatu moduan Opo toko KALE konpainiarentzat **Produto** sortu ondoren, OSA+MUJIKAren sorkuntza prozesu berri batean murgildu ziren. Lan horren emaitza dira 2019ko azaroan Gazteszenan aurkeztutako antzokirako 55 minutuko **KENOPHOBIA** -Danza a Escena 2021 katalogoan hautatua- eta ezohiko espazioetarako 13 minutuko **EXPECTATIONS WILL NOT KILL YOU** dantza piezak, azken hau RedAcieloAbierto2020an hautatua. Lan horretan burubelarri zebiltzala, Azkuna eta Dansatelier zentroen eskutik Amphytrion laguntzarekin solo berri bati ekiteko aukera suertatu zen, eta horrela hasi zen **LOSER**.

LOSER

Berezia nintzela esaten zidaten, behin eta berriz. Bizitzan nahi nuena lortuko nuela ere esaten zidaten, besterik gabe nahi izate hutsarekin. Errealitateak berehala esnatu ninduen; enaiz berezia eta ez dut desir tutakoa lortuko nahi izateagatik bakarrik.

Bizitza perfektua eta arazorik gabekoa erakutsi beharra eta erreala ez den mundu baten onarpen beharra, mugagabea den hutsunea estaltzeko bidearen bila. Hori da Millenialek sentitzen duguna; kritikatua den generazio honek egi sakona izkutatzen du: zoriontasun eza.

Guztiz aldakorra den teknologiaren eraginez, aldaketetara erraz eta azkar ohitzen garen pertsonak gara. Bestalde nartzisista, berekoi, helbururik gabekoak eta alperrak garela leporatzen digute, baina guzti hau azken urteetan eguneroko errutina errazteko gizarteak doitu duen “sari azkar” mekanismoaren ondorio da.

Ustearazi digutenaren kontra nahi dugun dena lortuko ez dugula ikusten dugunean autoestimua urratu egiten da. Generazio hau aurrekoak baino autoestimu txikiagoarekin azten ari da, sekula beteko ez dugun hutsunea betetzeko saiakera jarrai batean. Gure lan honek millenial baten buruan zer dagoen islatzeko helburua du, galtzaile sentsazio hori ere landuz.

Proiektu hau Azkuna zentroaren eta Dansateliers Rotterdamen lankidetzari esker sortutako Amphytrion laguntzarekin hasi genuen. Hasiera batean Rotterdamen martxo bukaeran aurkeztekoa zen, baina covid-19aren krisia dela 2020ko urrian estreinatuko da, bai Bilboko Azkuna Zentroan eta baita Donostiako Gazteszenan ere.





FITXA ARTISTIKOA

Zuzendaritza Jaiotz Osa + Xabier Mujika

Dramaturgia/Koreografia Jaiotz Osa

Interpretea Jaiotz Osa

Argiztapena Alvaro Estrada (AAI)

Jantziak/Eszenografia Xabier Mujika

Argazkiak Mariló Miguez / Alvaro Sau

Bideoa Etanowski

Ekoizpena OSA+MUJIKA

Banaketa Peio Mentxaka

Teaserra
https://vimeo.com/485375716/d8e5b660ac
Bideo osoa
https://vimeo.com/485370636/40bb833187

dans ateliers

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO

donostia kultura

dantza gunea

OSA+MUJIKA

osamujika@gmail.com
649 215 004 // 665 757 063
Jaiotz OSA // Xabier MUJIKA

www.osamujika.com
Facebook: Osa + Mujika
Instagram: osa_mujika

